

Ezpalak

JON TORNER

Ander Lipusek Piarres Larzabal lapurtarraren *Ibañeta* obra egokitu du. Larzabalek 1968an idatzi zuen antzezlan, ETAk Meliton Manzanas erail zuenean. Christiane Etxaluzek estreinaldian parte hartu zuen, eta Ander Lipusek egindako egokitzapenean ere parte hartuko du. Kasu honetan, ordea, bestelako mezua zabaldu nahi dute: "Oraingo gazteek ere, beharbada, berdin pentsatzen dute, gerla eginez garaipena helduko dela. Transmittitu nahi dugun mezua da guda armatuak bere lana egin duela, ez dela beti gauza bera errepikatu behar, zikloak bukatzen direla", adierazi du Etxaluzek. Antzezlanari urriaren 3an eta 4an estreinatuko dute Larzabalen.

Willis Drummond taldea bere bigarren diskoa grabatzen ari da Tolosako Bonberenean, Karlos Osinaga teknikariarekin. Hilabete barru kaleratuko du lan berria Bide Huts zigiluaren babesean.

25 urte Gasteiztik komunikatzen, 20 urte Gasteiz okupatzen

GASTEIZKO herri mugimenduak badu zer ospatua aurten. Hala Bedi irrati libreak 25 urte bete ditu, eta 20 Gaztetxeak. Hala, urriaren 11n zorion festa erraldoia egingo dute egun osoan zehar hiriko gune desberdinetan: Aihotz eta Buruileria plazetan, Gaztetxean, Landatxon... Haur, gazte eta helduei zuzendutako ekitaldi mordera izango da: erraldoiak, txalapartariak, zirko ibiltaria, tailerrak, pilota partidak, herri bazkaria, dantza eta antzerki emanaldiak, bertso saioak, kontzertuak eta abar. Egitarau osoa www.txorionak.org webgunean kontsulta dezakezue.



Augustin Zubikarai Sariaren oinarriak

ONDARROAKO UDALAK eta Elkar argitaletxeak nobela laburrentzako Augustin Zubikarai Sariaren oinarriak plazaratu dituzte. Abenduaren 1ean amaituko da lanak aurkezteko epea. Gutxienez 50 orrialde izan behar dituzte, eta gehienez 100. Sari bakarra emango da: 5.400 eurokoa. Epaimahaia Miren Agur Meabe, Ana Urkiza eta Xabier Mendiguren Elizegi idazleek osatuko dute. 2009ko urtarriaren amaieran jakinaraziko dute irabazlearen izena.

bota